

KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN		NAFARROAN	
25 positibo berri	1.626 hildako EAEn	84 positibo berri	529 hildako
3.141 positibo guztira*	2 UCIn EAEn	6.820 positibo guztira	

*Hernanin 78 Astigarragan 24

Urumea ibaiaren sekretuak eta sagardoaren kultura ezagutzeko aukera eskaintzen du ostiralero Petritegik

Kanoan nabigatu daiteke 7 urtetik gorako lauko taldeetan eta ondoren sagardotegiko menuaz gozatu daiteke sagardotegian bertan.

ASTIGARRAGA TURISMOA

2020 urte berezia da osasun krisiak sortu dituen eragozpenak medio eta turismoa da ekonomia aldetik kalte izugarria jasan duen sektorea. Jende askok oporrak bertan igarotzea pentsatu du, kanpora irten gabe eta bertan ere aukera zabala dago inguruko txokoak eta esperientzia berriak ezagutzeko.

Petritegi sagardotegiak, Sagardoa Route eta arrauning-ekin batera, martxan jarri ditu udara honetan hainbat ekintza bailaratik mugitu gabe turismoa egiteko. honela ostiralero Urume ibaian kanoan nabigatzea proposatzen du.

Gipuzkoar askorentzat ezezaguna den ingurune naturaletako bat Urumea ibaiaren behaldea da. Petritegik 'sagardoaren ibaiaren' lekuri sekretuenak aurkitzea proposatzen du. Antzinatik

Astigarraga eta Donostia lotu dituen ibai-bidea da eta ibilaldi eroso kanoan, ibaiaren historia, baserriak eta fauna ezagutzeko, Unai Elizasuren eskutik. Eta indarrak berritzeko, menua prestatzen dute Petritegin.

Gutxieneko lau pertsona behar dira taldea osatzeko eta 7 urtetik gora izan behar du. Irteerak ostiralero, 11:00etan, egiten dira Loiolan (Aralar Mendia kalea, 44) eta euskera eta gaztelaniaz ematen dira azalpenak. Jardueraren prezioa: 43,50 euro da helduentzako eta 27 euro 7 eta 14 urte bitartekoentzako. Informazio gehiago: www.petritegi.eus webgunean lortu daiteke eta erreserbak 943 45 71 88 telefonoan eta reservas@petritegi.com helbidean egin daitezke.

Bisita gidatuak sagardo-upategira

Beste aukera bat ere badago sa-



Kanoekin egiten da ibilbidea Urumean zehar.

gardo munduaz ikasteko. Petritegik Astigarragako sagardogintza eta euskal gastronomia ezagutzeko modua eskaintzen du upeltegira bisita gidatuak eta sagardotegiko menuaren dastatzea uztartuz. Gipuzkoako milaka urteko tradizio horren

sektuak ezagutu daitezke, sagar eta sagastien lanketaren aberastasun natural eta kulturala eta euskal sagardoaren aukera berriak ikusiaz. Petritegiko gidari adituek laguntzen dute. Jarduera honen prezioa 14 euro eta 39 euro artean dago bi-

sita-motaren arabera. Taldeak bi eta 12 pertsona bitarte behar dute izan, Bisita motaren arabera.

Ordutegia: bisita motaren eta hizkuntzaren arabera da eta euskeraz, gaztelaniaz, ingelesez eta frantsesez izan daiteke. **K**

Iberpapelek 6,03 milioi euro irabazi ditu lehenengo sei hilekoan aurrekaririk gabeko egoera batean

Irabaziek %53 egin dute bera eta 50 eguneko geldialdia egingo da produkzioan berrikuntzengatik.

HERNANI ENPRESA

Covid-19ak mundu mailan eragindako pandemiaren egoera larriak bulego, ministerio, ikastetxe eta abarren itxiera masiboa ekarri du, eta mundu mailan pa-

per-eskaria asko murriztu da.

Hala eta guztiz ere, Iberpapelek merkatuan duen posizioa defendatzea lortu du, paper-salmentak %24,12 murriztu baitira 2019ko lehen sei hilekoarekin alderatuta. Era berean, energia sortzeko jarduera %24,88 murriztu da aurreko ekitaldiko aldi berari dagokionez.

Grupo Iberpapel funtsezko jardueren artean sartu da, eta, beraz, bere instalazioak martxan mantendu ditu, nahiz eta batzuetan bere ekoizpena murriztu

behar izan duen, enpresa gehienek bezala.

2020ko lehen sei hilekoan, Taldeak 6,03 milioi euroko irabazi garbia lortu du, 2019ko epe berean baino %53 gutxiago. Negozio-zifrak 87,51 milioi eurora iritsi dira, ekitaldian baino %25,18 gutxiago eta EBITDA 12,75 milioi eurotan kokatu zen, %39,12ko jaitzierarekin.

Iberpapelek Hernaniko bere lantegian gauzatutako modernizazio-planen barruan, uztailaren amaieran instalazio berriak



Iberpapelek Zikuñagan duen instalakuntza.

amaitu berri dira eta zelulosa-lantegian daudenekin konektatuko dira. Ondorioz, ekoizpenak

50 egun iraungo du gutxi gorabehera, eta horrek eragina izango du konpainiaren emaitzetan. **K**

FUNERARIA ORBEGOZO BEILATOKIA

Asegururik ba al duzu?

Deitu Orbegozora

24 orduko tlfnoa.
943 33 10 20

www.funerariaorbegozo.com

Zentrala - Latsunbe 7, Hernani

* Zerbitzu partikularrak eta aseguru txarrekin
* Beilatokiak

* Erresketak
* Lekualdatzeak
* Eskelak, korroak...

HERNANI ANDOAIN ASTIGARRAGA URNIETA GOIZUETA

PEÑA

sulabe

Okindegia - Janaridenda

Eguneroko zure beharrei erantzuteko, Kale Nagusian gaude.

Kale nagusia, 19 - Tel.: 943 55 23 98

MARI FE

ARRANDEGIA

NAGUSIA 36 943 550 489

GAUR Euri gubiago egingo du eta arratsaldean zerbobait argituko du. Laino geruza arratsalderako saretu eta ostarteak zabalduko dira. **Min.17° / Max.21°**

BIHAR Eguraldiak moteletik jarraituko du, bereziki ipar partean, bertan zerua lainotu samar egongo da eta goizaldean eta goizean goiz euri-ziprintinak bota ditzake. **Min.17° / Max.24°**

DOBERA EUSKARA ELKARTEA

LAGUNTZAILEK

Hernaniko Udala

Astigarraga Udala

Donostia Auzo Udala

GOIZUETA UDALA

ARANOKO UDALA

TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOAK:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **Castilla** Urbietan, 7 (Hernani) **943 552941** Gaeuz: **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**

ELKARTEAK

GIJONKO FORU AHDARUA

DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK

ELKARTEAK

'Maialen' traineruko hamabi neska arraunlari lau taldetan banatu dira

Hibaikan bost, Tolosaldea eta San Juanen hiruna arraunlari eta Zumaian bat ari dira arraunean, pasa den urtean Hernanin aritu zirenak.

HERNANI ARRAUNA

Aurten *Maialen* trainerurik ez dago uretan eta Hernanin izena ez da denboraldian zehar entzungo uretan, baina bai mutiletan eta bai nesketan badira bailarako arraunlariak eta *Maialen* traineruan arraunean aritu zirenak pasa den urtean.

Honela, Hernani klubean zeuden hamabi arraunlari lau talde desberdinetan banatu dira

denboraldia eta talde horiek osatzeko.

Tolosaldean Carolina Garcia, Itxaso Aranburu eta Eider Barba daude. Hibaika da Hernanin aritutako neska gehien dituen taldea bostekin. Bertan dabilza Nerea Irastorza, Uxue Alberdi, Garazi Arabiatore, Jone Pastor eta Estitxu Zabala. San Juanen ere arraunean dabilza Olaia Barriuso, Naroa Lizarreta eta Nahia San Argimiro. Eta az-

kenik, Zumaian Helena Merino kataluniarra.

Tolosaldeak lautik lau bandera eta Hibaikak ostiralean, Santoñan

Orain arte Tolosaldea izan da nagusi ETE Ligako estropada guztietan lau banderak poltsikoratuz. Ostiralean Santoñako ikurriña jokatu zen, Ligatik kanpo, eta bertan Hibaikak irabazi zuen Isuntzaren aurretik. Beraz emaitza onak lortu dituzte.

Euskal Herriko txapelketan, ostiralean, Xabat Pastorrek brontzea lortu zuen Lekeitioko uretan. **K**

Zurutuza eta Manterolak EHko Pala Txapelketa Irekia irabazi dute

Hirugarren mailako finalean 23-25 gaingitu zituzten Agirre, hau ere hernaniarra, eta Mendigain Oiartzungo Madalensoron.

HERNANI PALA

Goizean goiz, baina kostata irabazi zuten Zurutuza eta Manterolak Oiartzungo Pala Txapelketako finala, Madalensoron, larunbatean. Euskal Herriko Pala Txapelketa Irekiko finala ere bazen hirugarren mailan gomaz eta azken partiduan 23-

25 gaingitu zituzten Agirre eta Mendigain. Txapela bat Hernanira etorriko zen bai edo bai, Agirre ere bertakoa baita eta azpitxapeldun geratu da.

Nesken erakustaldi partidua ere jokatu zuten Urdangarin eta eta Galdose hernaniarrek, Eizmendi ahizpen aurka. Hemen ere garaipena bikote hernania-

rrak lortu zuen 18-25 partidu eder batean.

Giro bikaina egon zen frontoian eta hernaniarrek pankarta ere jarri zuten lagunak animatzeko *Esfortzurik gabe, ez dago txapelik. Aupa Zuru eta Mante!* leloarekin.

Ondoren bigarren eta lehenengo mailako finalak jokatu ziren eta Atxotegi-Gallastegik 25-24 gaingitu zituzten Beloki eta Eskudero bigarren mailan eta lehenengoan Huegun-Arregik eraman zituzten txapelak. **K**



Unai Roldan entrenatzailea taldeko hiru lasterkarikin.

CD. Hernaniko atletak Anoetan itzuli dira konpetizioara

HERNANI ATLETISMOA

Pasa den ostegunean hasi ziren atletismoko probak eta izugarriko beroarekin Anoetan CD. Hernaniko bost taldekide aritu

ziren lehian: Arixen Unanue 100 eta 400 metrotan, Enara Macicior 100 eta 300 metrotan, Amaiur Velez 100 metro hesi eta luzera jauzian, Mikel Campos

100 eta 300 metrotan eta Xabier Sesma 1.500 metrotan. Balarazio positiboa egin da egoera zein den ikusita. Segurtasun neurri guztiak hartu ziren.

Postalei erantzun daieteke kultur etxeez

ASTIGARRAGA UDALA

Erribera kultur etxeko inaugurazioa irailaren 12an egingo da eta, herritarrei postal bat betetzeko eskatuko zaie *Agur Kultur Etxea... Kaixo Erribera* esaldiei erantzunez.

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzten duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.



KEPA URREAGA URKIZU

(Marisol Etxeberriaren alarguna)

Atzo hil zen, 74 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta

- Goian Bego -

Seme-alabak: Kepa eta Pili, Bakarne eta Rober, Iñigo eta Ainhoa, Mikel eta Cristina; bilobak: Iraia, Xaloe, Eneko, Zihara, Jon eta Luka; anai-arrebak: Eulali eta Esteban (†), Rosa (†), Benita (†), Paki (†) eta Fermín (†), Pili eta Paulino, Iñaxio eta Izaskun; laguna: Rosario Ormazabal; ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezte **GAUR, ASTELEHENA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, JOAN BATAIATZAILEAREN** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2020ko abuztuaren 3an

Helbidea: Agerre baserria.

OHARRA: Gorputza **HERNANIKO ORBEGOZO EHORKETA TANATORIOAN** egongo da **GAUR 18:30ak** arte.



KEPA URREAGA URKIZU

(Marisol Etxeberriaren alarguna)

Zenbat kontu ikasi eta ezagutu ditugun zuen etxean: baserria, ohiturak, bertsoa, dantza, kultura,...

Eskerrik asko denagatik

ILOBAK ETA ILOBA TXIKIAK

Hernanin, 2020ko abuztuaren 3an



KEPA URREAGA URKIZU

Besarkada haundi bat familiari

MIKELEN KOADRILA

Hernanin, 2020ko abuztuaren 3an



KEPA URREAGA URKIZU

Bakarne Urreaga Etxeberria irakaslearen aita

HERNANIALDEKO AEK-KO IRAKASLEAK

Hernanin, 2020ko abuztuaren 3an



MARGARITA ARRUE AMONARRAIZ

Izan zarenagatik eta erakutsi diguzunagatik ez zaitugu ahaztuko

OTEGITAR LOIDIKO AXUN ETA ILOBAK

Hernanin, 2020ko abuztuaren 3an



IRAGARKI MERKEAK

Etxebizita bat salgai Martindegi Auzoan. Interesa duenak. **Deitu 676 55 86 96 Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**